

ZOOM OUT

Itziar Okarizek zuzendutako lantegia

Artium, ekainaren 9tik 14ra bitartean

Ordutegia: 10.00etik 14.30etara (ostirala 13an 16.30etatik 21.00ra izango da)

Izen- ematea: proklamar@gmail.com (dohakoa, epea ekainaren 2an amaituko da)

Artium eta AZALaren arteko elkarlana den **Proklama # 1** egitarauaren barruan

Zoom Out izenburuak bere azken performance artean dagoen *Virginia Woolf II Atala* lanaren prozesuari egiten dio erreferentzia. Zeinuen bitartez testu baten eraketa landu zuen pieza horretan, paisaia forma zuen irudi bat azaleratu arte.



Lantegi honek ariketa bat proposatzen du zeinean harremanetan jarriko diren zeinuaren egoera desberdinak, ezagutzaren eraikuntza prozesua eta zeinuaren ekoizpenak munduan duen papera.

Ekintza eta performance kontzeptuak praktikan jarriko dira, hala nola beren errepresentazio eta erregistro problematikak. Hauek ekintza baten oinarri izango dira, joan- etorria izango duen bide batean, ekintza bera, haren erregistroa eta performanceak dituen errepresentazio grafikoen artean.

Performancearen inguruan gogoeta egiteko gonbitea da, zeinuak ekoizteko eta eraldaketa tresna baita. Lantegiak prozesu bat hasi nahi du, forma jakinik gabe, interesa duenarekiko bilaketa bultzada bat, non sentimendu amankomuna komunikazio tresna bakar bezala erabiltzen den lantegiko partaideen artean. Praktikarekin batera materialak ikusi eta irakurriko dira. **Lantegiaren aurkezpen eguna:** ekainak 13 eta 14

Itziar Okarizen (Donostia, 1965) ekintzek errepresentazio eta komunikazio dispositibo desberdinak abiarazten dituzte, hauek erabiltzen dituzten konbentzioak jarraituz haiengan haustura bat sortzeko. Adierazleen deskontestualizazioa, orden lojikoa, begiratzen duena eta begiratu denaren arteko rol aldaketa nahiz errepikapena erabiltzen duen prozesu mimetiko bat.

+ Info: [ZOOM OUT](#)